

## JEAN PIAGET Y LAS CIENCIAS HUMANAS

Epistemología, sujeto y nación.

Xabier Palacios,

Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Gasteiz, 1994

Hogei urtez landutako liburu baten aitzinean zaude irakurle. Ez da gutxiagorako eskuartean erabilitako gaiaren aberastasuna eta zailtasuna. Izan ere, K. Marx eta S. Freudez gero, giza eta gizarte-jakintzek gai hori jorratu besterik egin al dute bada? Eta haietarik geure aldira urte beltzagorik igaro da! Berrikitan ere, jakintza egiteko moldeak, subjektuaren garrantzia eta nazioen iraunkortasun jarraitua birplanteatzea ez al dira giza eta gizarte-jakintzen eginkizunik nagusienak?

J. Piaget, bere muga guzietan, desafio (inola ere ezin itzulizko dena beti negatibo den erronkaz) proiektibo batez biologia eta logika, psikologia eta filosofia, historia eta soziologia, linguistika eta antropologia, ekonomia eta demografia, zibernetika eta literatura elkarrekin gurutzarazten eta kolaborazioan lehiarazten saiatu baitzen. Nola natur jakintzek hala gogoeta-jakintzek gizaki-emaztekiaren izaera, portaerak eta produkturiko obrak esplikatzea eta konprenitzea helburu bakar eta bera baitute.

Sistematizazio desberdinen mugak hausten ere iaioa izan zen.

Fenomenologia, dialektika hegeldarra bezala marxista, neopositibismoa eta estrukturalismoa "deskonbertsioaren" pean ezarri zituen, hots,

intuizioaren eta introspekzioaren izenean egindako erabilpen abusiboak erakutsi zizkigun molde pedagogiko batez. Metodo klinikoan oinarriturik natur jakintzak eta gogoeta-jakintzak harmonizatzea lortu zuen. Herme neutika bikoitza deitu izan dena deskubritzeraino heldu zen metodo historiko-kritikoen eta formalizanteen konbinazioaz.

Haurraren pentsamenduan eta adimenean ematen den garapenean begiematen zuen bereziki guzi hori. Eta garapen hori psikiko bezainbat sozial kontsideratzen zuen. Haurtzarora, nola ezagutzaren hala moralaren ikuspuntutik "egozentrismoak" karakterizatzen du. Hara nola idazten duen: "Gogoia unibertsoarekin konfunditzetik hasten denez, lege objektibo direnak disoziatzea lortu aitzin, indibidua ere bere baitatik oro konprenitzen eta sentitzen hasi ohi da, gauzetatik eta gainerako pertsonetatik datorrena eta norberaren ikuspuntu intelektual eta afektibotik datorrena bereztu aitzin, alegia. Indibidua, horrela bada, ezin daiteke bere pentsamentuaz ohartun izan, norberaren kontzientziak ni neuren eta bestearen arteko kontrastatzea inplikatzan duelako, noski. Logikaren ikuspuntutik bada, egozentrismoak alogismo bat darama, zenbait aldiz, afektibitateak objektibitatea gabetzean, eta beste zenbaitez norberaren

ekimenez sortutako harremanak ni neuaren harreman independenteak kentzean gauzatu daitekeena. Are moral ikuspuntutik so, egozentrismoak anomia gisako zerbait darama, samurtasuna eta desinteresa egoismo lauarekin konfunditzeraino heldu baititake, haurra kasu batean baino bestean hobeto sentitzen ez delarik batbatean. Bestalde bere gogoan agertzen diren ideiak bere baitan sinismenen forma pean agertzen direnez, eta inola ere ez egiaztatu beharreko hipotesien itxuran, era berean haurraren kontzientziatik sortzen diren sentimenduak ere hastapenean balore erakargarriez agertzen zaizkio, eta inola ere ez geroago ebaluazio bati menperatu beharrezkoz. Anomia intelektual eta efektibo hori besteen epaiekin eta ebaluazioekin harremantzean bakarrik, hots, arau logiko eta moral kolektiboaren presio pean lurrinduko da". (J. Piaget, *Le jugement moral chez l'enfant*, Librairie Felix Lacan, Paris, 1932, 465-466 orrialdeak)

Metodo berberaz agertuko du nazio-fenomenoa. Portaera mental edo ezagutzaila bezala afektiboa barrentzen duten hiru estadiotatik igarotzen baita haurraren bizitzan nazio kontzeptuaren desaroiloa. Funtzio ezagutzailaek portaeren egiturak determinatzen dituztelarik funtzio afektiboek dinamismoa ziurtatzen dute, hots, finalitatea edo balore elementuak.

Lehen estadioan, zazpi edo zortzi urte artekoan, hain zuzen, elkarren ondoan ezarritako unitateak bakarrik agertzen zaizkio haurrari: Ginebra-Suiza bikotea oraingoz ez zaio zati eta oro bezala agertzen. Bigarren estadioan, zortzitik hamar-hamaika urtera doanean, Ginebra Suizan

agertzen zaio baina inolaz ere ez klase logikoen arteko inklusio bezala. Aldi berean norbait ezin da izan ginebrino eta suizo. Hirugarren estadioan, hamaikatik gorakoan, sistematizazio aberri ideian ixten da. Orduan arazoa, faktore intelektualei zor zaien jakitean datza, eta eragin afektiboaren menpe dagoen edo biak elkarrekin progresiboki eboluzionatzen duten ezagutzean, alegia. Erantzuna baiezkoa izango da, hots, faktore afektiboak hiru estadioak kubritzen dituztela erakutsiko zaigu. Beste nazioei buruzko erreakzioek egozentrismo gaituzten kulunkatzen dela deszentrazioa erakusten digute, baina soziozentrismoaren forma pean birragertzen bada ere, egozentrismoari buruzko garaipenak erreprozitazioan emandako aurrerapen-urrats bezala adierazten dira. Erreprozitate haur psikogenesian agertzen denez, subjektuaren nazioaren eta gainerakoen nazioen arteko harreman psikogenesian agertzen denez, subjektuaren nazioaren eta gainerakoen nazioen arteko harreman-abagadunetzat definitzen zaigu. Lehen estadioan, atzerritar-nozioa absolutu bezala dago, erreprozitatearen ulermen-ahalik gabe, alegia. Bigarren estadioan nahiz egozentrismoaren eraginak handiak izan erreprozitatearen ulermenean hastapena ageri da. Hirugarren estadioan erreprozitate aurrez formulaturiko bi galderei erantzun bezala agertzen da: 1) nazionalitate gabe sortu izan banintz, zer aberri hautatuko nuen?; 2) zer aberri hautatuko luke haur frantses batek? Bi galdera hauek, harreman logikoen ikuspuntutik formulatutako beste biz osotarik doatza? 1) zer da atzerritar bat?; 2) zu zeu noizbait atzerritar izan al zintezke (bidaiari zarelarik, etabar)?

Gaurkotasun handieneko gaia dugu aplikazio hau, noski. Nik neuk, jadanik, aipatua nuen nire "Sociología de una nación en movimiento" liburuan (1992). Irakurleari autoktono-atzerritar binomioa aztertu nahi badu Jean Piageten lanak gomendatzen dizkiot, aipatzen den liburuak sarrera egiten bikainki lagunduko diolarik. Aurkezpen hau burutzeko, esan dezadan, hiru parte eta hamar atal dituela liburuak. Lehen partean, autorea eta bere obra aurkezteaz

gain, arazo epistemologikoen kritika historikoa egiten zaigu. Bigarren partean, epistemologia genetikoaren zertan datzan luzaz aditzera emango zaigu: logikarekin, psikolinguistikarekin, jakintzaren teoriarekin eta filosofiarekin dituen harremanak aztertzen direlarik. Hirugarrenean subjektuaren krisia giza eta gizarte-jakintzetan eztabaidatu ondotik nazio kontzeptuaren psikosoziologia eginez amaitzen da.

*Jokin Apalategi*